



## Paisaia liluragarriak

IBAN NIKOLAIREN DOINUAK entzuten ditudanean, oharkabea, bidaiatzen hasten naiz, eta paisaia liluragarriak ikusten ditut: itsasoa, mendiak, basoak, zelaia... Giro hunkigarriak eta sentsazio paregabeak nabaritzen ditut.

Didjeriduaren soinu bereziarekin bibrazio apartak sorrarazten dizkit. Didjeriduarekin bakarrik lor daitezkeen hots eta soinuak ederki jotzen ditu Iban Nikolaik, eta melodia politak ere egiten ditu. Kantuak giroak dira batez ere, baina ez dira bareak edo geldoak. Erritmikoak dira, dantzagarriak edo gorputza mugitzeko modukoak.

Didjeridua diskoaren ardatz nagusia da. Hainbat didjeridu motarekin aritu da perkusio soinuak eta melodiak sortzeko, eta aho perkusioa, loop-ak, PVCko tutu bat eta beste tresna batzuk ere erabili ditu grabazioan.

*Organika* lan ederra Iban Nikolai azken aldian egiten ari den jendaurreko emanaldien ispilua da. Orain arte egin duen diskorik pertsonalena da. Doinuak berak konposatu ditu, mimo handiz, eta berak bakarrik egin du dena grabazio saioetan, beste



*Organika*  
Iban Nikolai  
Autoekoizpena,  
2013

musikaririk edo kolaboratzailerik ez baita izan. Berako Mikestudioan grabatu, nahastu eta masterizatu du diskoa, Aitor Garcia Maikel eta David Giner teknikarien laguntzaz.

Kantuen artean, aipagarria da Prodigy taldearen *Their law* eta Deep Purple taldearen *Smoke on the water* kantuak omendu dituela. Bi kantu horien oso bertsio bitxiak egin ditu. Halaber, Jon Manterolak osatutako *Voices* bideoklipa ere badago *Organika* lanean.

Didjeridua Australiako aborigenek antzinatek erabiltzen duten haize musika tresna da. Ezpainek bere barruan bibratzen dutenean soinu berezi bat sortzen da. Eukaliptoaren eta beste zenbait zuhaitzen egurrezko tutu bat da. Termitek zulatu eta enborraren erdiko zatia jaten dute, eta horrela egiten dute tutua. Didjeridu izena europarrek jarri zioten, Australiako aborigenen hizkuntzetan hamaika hitz baitaude musika tresna hori izendatzeko: yidaki, ginjungarg, eboro, djalupu, maluk, eta abar.

Iban Nikolai duela 15 bat urte hasi zen didjeridua jotzen. Djalu Gurruwiwi eta Milkayngu Mununggurr maisu aborigenekin ez ezik, beste hainbatekin ikasi du: Mark Atkins, Gary Thomas, Charlie McMahon, Mattias Muller, Lies Beijerinck, Ansgar Stein, Sjaak Sbell, Marcos Andreu, Dubravko Lapaine, Gauthier Aube, Nello Chiuminatto, Raul Orte...

Oiartzuarra da baina Ataunen bizi da Iban Nikolai. Jendaurreko emanaldiak egiteaz gain, eskolak ematen ditu. Jaialdi eta tailer ugaritan parte hartu du European, Australian eta Ameriketetan. *Organika* lana bere seigarren diskoa da. Aurrekoak: *Alla Yidaki* (2011), Samar taldearekin osatu zuen *Ramas* (2008), *Hamar* (2007), *Didjeridu Hotsak* (2003) eta *Yurlunggur* (2002).

Musikari handia eta geldiezina da. Bere lanetako doinuak jendaurrean jotzen aritzen da, eta talde eta artista ugarirekin ere jardun izan du, laguntzaile moduan. Besteak beste: Wooden Cave Project, Oscar Portugues, Rude Kanka, Briganthya, Faltriqueira, Banja Luka, Zea Mays, Oreka TX, Zurartean, Ibon Koteron, Luis Camino, Desoreka eta Xabi San Sebastian. ■



Joxi Ubeda